

Ekidazu mingotsa, edo Mikel Zarateren alegien gaurkotasuna

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte

Hogeita bost urte kanpoan eman ondoren, oso nekaturik itzuli da Mikel. Bidaia luzea egin du. Zeruko erresuma urdinetik etxera itzultzean azaleko gauza gehienak aldatuak aurkitu dituela adierazi digu. Garaiak, ohiturak, ezagutzen zituen bazter batzuk arrotz gertatu zaizkio. XX. mende bukaerako azken egun hauetan hirugarren belaunaldiko telefonía berria, ordenagailuak eta informatika sareak edonon hedatzen ari dira. Baina berak idazluma nahiago du. Ekidazuko astoen bizitza izugarri hobetu da eta plaka urdin eta izartsuak dituzten beribiletan doaz lanera. Baina oraingo astoak presaka doaz orduko giza-roboten antzera eta berak paseatu nahi du. Oraingo astakumeek arrantzan eta arrantzez ikas dezakete Ekidazuko unibertsitatean. Baina zein den egokitu zaizuna arrantza gehiago eta orroago edo gutxiago eta ixilago egin dezakezu eta berak larre guztietan arrantza luze eta mugagabea egin zezaten nahiko luke.

Bai, Mikel hil zen, egia da, baina gure bihotzetan oraindik bizirik dagu. Benetan itzuli izan balitz gizartea guztiz eraldaturik aurkituko zukeen eta, hala ere, Ekidazu lehen bezain mingotsa irudituko zitzaiokeelakoan nago.

Geroko geroaren geroak Derioko apaizgaitegiko irakasle hura lako zoroak sortu ditu, ero garbiak, eta horien laguntzari esker aurrera goaz, aurrera, Zaldibiren antzera. Oztopoak ez dira txikiak izan, ez... *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburua sortu zuten arrazoi nagusiek oraindik orain, Ekidazun eta mundu zabalean ere, beren izanetan baitiraute.

Olerkariaren esana egia balitz (denek ez baitute hala uste) eta egunero borrokatzen duten gizonak ezinbestekoak balira, Lezamako idazlea horietako bat genuke. Dударik gabe, ezinbestekoa. Besteekiko konpromezua, euskararen batasuna, bizkaieraren defentsa sutua eta gure literatura berriaren eraikuntza izan ziren Zarateren bizitzaren ardatzak (cf. Manterola 1979, Kortazar 1979a eta 1979b). Euskal hizkuntzalaritzan eta literaturgintzan bere itzala nabaritzen da oraindik. Mikel Zarate ezinbestekoa dugu eta egungo Ekidazu mikatz honetan bere ideiak iraganaren lekuko zaharkituak izan beharrean gaur gaurkoak eta inoiz baino premiazkoak ditugu.

Idazle honen garrantzia bere bizitzaren azken hamarraldian idatzi zituen funtsezko lau liburu hauetan islatzen da: hitz lauz, *Haurgintza minetan* (1972) eta *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975); neurtitzetan, *Higidura berdez* (1977) eta *Bizipenen bultzadaz* (1978). Liburu hauek argiro erakusten dute irudiak eta ideiak guregana hurbiltzeko Zaratek zuen erraztasun berezia. Titulu hauen guztien artean, halere, bada-go bat niri eta beste askori ere bete-betean, edo zuzenago, edo min sarkorragoz bihotzaren erdiraino ailegatu zitzaiguna, *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (hemendik aurrera IAAM) liburua, umeendako idatzia izan ez arren haiendako egina zirudien helduendako liburua (Antoine de Saint-Exupéry-ren *Le Petit Prince* dut gogoan). Alegi gehienak nabarmenki murgiltzen ziren diktaduraren garai hartako giro bel-durtian, Euskal Herriak bizi zuen egoera artetsuan; demokraziaren etorrerarekin alegi mingots haiek umelak, manikeismoak joak, sendotasunik gabeak gerta zitez-keen. Damurik, ez da hala izan.

Ipuin hauek manikeoak dira, bai, pertsonaia batzuk oso onak dira, besteak ezin gaiztoagoak. Ahula (gehienetan) ongilea, ahaltsua (beti) maltzurra. Ekidazu zanpa-tua, Aberetako Piztiaga zanpatzailea. Zuria ala beltza. Bizitza ez da honelakoa. Badi-ra hemen aipatzen ez diren nabardurak eta lerradura anitz, gaur ona dena, bihar gaiz-toa izan baitaiteke, eta alderantziz. Baina ipuin mingots hauetan ezin dira kasu bakan eta berezi guztiak azaldu, orokortasunera jo behar da, nahitaez, eta ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka betierekoaren zaurietatik ikasi (cf. Kortazar 1979b). Bizitza ez da manikeoa, ez, baina bizitzan eragiten duten faktoreak halakoxeak dire-la dirudi behin baino gehiagotan.

Batuaz prestaturiko argitalpenean (*Ipuin antzeko*, 1975 (hemendik aurrera IA)) Zaratek bere eraginak agerian uzten ditu. Lauaxeta izan du eredu; bai eiki, olerkaria izateaz gainera alegigilea ere izan baitzen Lauaxeta eta Zarateren iritzi oso ona gainera. Izan ere, hauexek dira bere iritzi Lauaxetaren lanik interesgarrienak *Larrosea eta txarria*, *Gaztaia ta katua*, *Txitxea eta mirua*, *Loreak eta eguzkia*, *Mutiltxua ta erlea*. Horien guztien eragina jaso arren, gehien liluratu zuena *Arrats-beran* (1930) argitaraturiko *Udabarriko autorkuntza* izan zen, bertan egiten den boteredunen zuzentza makurraren salaketarengatik: ahaltsuen zakarkeriak, bidegabekeriak eta irainak zigorrik gabe geratu eta esteiari eta dohakabeen jokaera arinak, barkagarriak, Txerrenen infernuaren sariaz ordaintzen dira. Emaztea urkatzea ez da bekatu baldin eta “piztien etsai ankerra” bazara, baina apaizaren ardoa dastatzea eta bukatzea horixe bai dela bekatua, bereziki “zelai hezeko hanka-arina” bazara. Zein den aurrean duzun epailea, zein den ahaltsuen aurrean duzun indarra, errudun edo errugabe ateratzeko aukerak ugariagoak edo urriagoak izan daitezke (egileak La Fontaine alegigilearen *Les animaux malades de la peste* dakarkigu gogora):

“Selon que vous serez puissant ou misérable,
Les jugements de cour vous rendront blanc ou noir.” (IA, 16)

Zaratek alegigile klasikoak irakurri ditu, bai kanpokoak (Esopo, Fedro, La Fontaine, Iriarte, Samaniego, Hartzenbusch), bai eta Euskal Herrikoak ere (Mogel, Iturriaga, Uriarte, Zabala). Haien eragina jaso du, baina, hala eta guztiz ere, berezko estiloa darabil eta aurrekoen itzaletik oso urrun aldentzen da; hori dela eta, bere ale-

giak besteenak baino gozagaitzagoak gerta daitezke. Beharko, alegi gozagaitzak eta mingotsak izan behar zuten, besterik ezinean, islatzen zuten urte haietako giroa guztiz mingotsa zelako.

“Mikelek alegiok 1975 aurretik idatzi zituan, hau da, Franco hil baino lehenago, eta 1972 baino geroago, hau da, Carrero Blanco hilda gero. Oraindino askatasunik ez egoan legez, baina askatasunaren aldeko eskabideak gero ta ugariagoak ziran, ostera.” (Zarate 1985: 9)

Izan ere, 70. urtearen hamarraldiari ondoko bi gertaera hauek eman zioten hasiera: alde batetik, Burgosko Auziak eta, bestetik, Gipuzkoan eta Bizkaian bizi zen salbuespen egoerak. Prozesu hartan sei heriotz zigor agindu ziren nahiz eta Europako nazioen presioaren ondorioz azkenean ezarriak ez izan. Ziklo hura 1975ean itxi zen, irailko fusilatzeak eta diktadorearen heriotza gertatu zirenean. Alegiak garai beltz horren lekuko ditugu:

“Nire alegiok ere mingots samarrak dira, gaurko idazgiro mingotsa lakoak... Garga-doturik dagoz, zuzentasun gose-egarriak sortutako mingostasuna, paradisu-amesak irudimenean aundiagotutakoa.” (IAAM, 10)

Bizitza bera da inspirazio iturririk hoberena, eta bizitza mingotsa bada, hortik eratoritzen dena ere berdin. Bizitza da, bere esanetan, “libururik onena ikasteko eta irakasteko”. Bere alegiak bizitzaren ondorioz idatzitakoak dira, “literatura bidez azaldutako bizitzaren ondorena” dira, ondoren alaia askotan, gazi-geza hainbatetan, mingotsa bestetan. Hala da, bai, alegiok irria eta negarra nahas ditzakete zirkuetako pailasoen antzera. Zaratek bufoiekin eta arlekinekin erkatzen ditu, horiek ere farrea eragiten baitute baina, behin baino gehiagotan, hauen farrea samina izaten da, irria eragin duen egitatea, behazunaren antzera, hagitik mikatza datekeelako.

Alegiek bizitzatik ikasi eta bizitzaz hitz egin behar dute, baina bizitzaren errealtate hori irudikatzeke irudimenaren hizkuntzaz baliatuko dela dio, logikaren hizkuntza, hizkuntza analitikoa, ez dela batere eraginkorra izaten gizakiaren bizinahia kolpatzen duten bihotz barneko kezkez mintzatzeko. Irudi-hizkuntza herriarena da, umeez, olerkariak eta zoroek erabiltzen dutena, gizakiaren benetako izateari dagokiona. Horregatik irudi surrealistikak, hiperboleak, neologismoak (“Aoa zabalik, betagin sendo ta zorrotzak agirian ditu, eta aideportutu egin dau aren miiña neguko eltxo epel batek” IAAM, 75), esaldi motzak (“Zezeilla. Edurrez mendiak. Otz. Illun” id.) eta luzeak, denak nahasten ditu, irudimenean denak nahastuak egon eta ahalezkoak direlako.

Beraz, bizitza surrealismoz mozorratu eta bizitzaren inauterian murgilduko gara. Izan ere, inauteria aipatzen du behin eta berriz, beldurraren inauteria usu, baina, geroago eta indar gehiagorekin, egiaren eta askatasunaren inauteria.

Bai, beldurraren eraginez benetako (g)izakiak izkutatu eta, amorraren amorruez, gizartean dauden gizatalde eta arketipo batzuk basapititzat hartuak izan daitezke eta zenbakiak edota altzairuzko robotak bilakatuak izan ere. Baina maitasunari esker, askatasun egarriari esker, uso batek gizakia bera baino gizatiarra eman dezake eta, orduan, Zarateren alegi hauen pertsonaiek erabiltzen dituzten estalkiak oso meheak direla antzeman daiteke. Horregatik, *Iñauteri* ipuinean aratusteek, esan

nahi baita, alegiek nolako aldaketa eragiten duten galdetzen denean (“pertsanak numerotu ala numeroak pertsonatu?” IAAM, 157), abere bezala bizi den gizakia aberetu eta gizaki bezala bizi den aberea gizondu eta emakumetu egiten dutela erantzun daiteke.

Egiaren inauteriari dagokionez, aurpegia estalita alegiek egia esan dezakete beldur gabe. Mozorrorik gabe arriskutsua da beti, diktadura batean askoz ere arriskutsuagoa, jakina. Astoak arrantzaka eta ardiak marraka aritzen dira diktadura gordine-tan ere, baina herriak ezin du fitsik esan. Ezin esan diktadura batean “diktadorea beti diktadore”, baina zein-nahi egoera politikotan “otsoa beti otso” esan daiteke, diktadoreak ez baitu “otsotzat” bere burua hartzen. Horregatik, bada, herriak ez badu ahotsik, astoek eta ardiek darasatela eta otsoa otso dela aldarrika dezaten goraki!

1. Ahaltsua eta ahula

1.1. Ahaltzuaren harremanak ahularekiko

Zarateren alegietan ahaltzuaren eta ahularen arteko harremanak agerian uzten dira. Boterea duenak bere nagusigoa erakusten duenean zapalduari erantzuteko aukera gutxi geratzen zaio eta goitik datorkion indarkeria pairatu behar du, nahi eta nahi ez. *Bestelan ondo baiña... ez* alegian botere harreman kutsatu hau ikertzen da. Garrantzi handiko gaia zen Zaraterentzat eta bai IAAM-n, bai eta IA-n ere, hitzau-rreren ondoren alegi hau kokatzen du.

Ipuinean, beribil batek errepidearen galipotaren artean erdi itota eta nekez hazi den belar izpi batekin hitz egiten du. Belarra, deslai utzirik, gose dago, egarri eta janaririk gabe, edaririk gabe. Errepideko basamortuan hazi da, bakarrik, seniderik gabe, autoen gurpilek kolpatua, galipotak itoa, zapalgailuko zilindroak noiz aurizki-ko eta hilko duen zain. Babesgabe eta beldur dago belarra, eta autoari ez zaio beste galderarik bururatzen:

“–Bestelan ondo baiña..., ez?”

–Bai, Auto Jauna! bestelan oso ondo...” (IAAM, 17)

Zaratek ahaltzuaren paternalismoa eta lagungo faltsua salatzen du, belar gaixoa-rengana hurbiltzean “aldunen irribarre nasai zabal bat egiten dau arek” baina, egia esan, indartsua indargabearen arazoak entzun eta horietaz kezkatu egiten dela diru-dien arren, benetan ez zaio axola eta, azken finean, txiroen oinaze eta pairamenekin ez du bere erosotasuna hautsi nahi.

“Bestelan oso ondo

bedar erdi illa.

Badoa, badoa,

bizkor, berebilla...” (IAAM, 17)

Gainera, ahulak zikinak izaten dira maiz eta, esandakoa baieztatuz, errepideko belarra olio-z betirik dago, kearengatik bere berdetasuna belzturik. Ahaltzuak, ordea, distiratsuak dira, ipuinaren automobilaren antzera. Makurturik, mindurik eta

aieneka dago belarra errepidearen erdian, bere malkoa ere beltza da galipotaren eta kearen antzera. Automobila, berriz, handia, indartsua, osasuntsua, gaztea eta mardula. Dena den, Kortazarrek (1982: 102) ohartarazten duenez, liburuaren bigarren argitalpenean kotxearen koloreaz ez da deus ere esaten eta ezabatu eta zentsuratu egiten da, auto distiratsu hori Aberetako banderaren kolorez jantzirik baitatorkigu:

“Autoa lehen edizio horretan ori ta gorri dugu, bigarren edizioan kentzen den aipamena, saria ematen zuen kutxaren indarrez, Mikelek esaten zuenez” (Kortazar 1982: 102)

Ipuin honetan paternalismoa eta nazio-zapalkuntza lotu rik agertzen zaizkigu; bigarren argitalpen horretan zentsuratua dagoena zapalkuntza horren adierazle garbia dugu Kortazarren iritziz eta gaztazka hori (Piztiaga vs. Ekidazu) da liburuan zehar gehien ikutzen den gaia eta bost alegi hauetan argi eta garbi erakusten dela dio: *Bestelan ondo*, *Arrastaka*, *Ekidazuko astasendia*, *Serbitzarien serbitzari* eta *Erle ta Miru*.

Izan ere, Kortazarrek aipatzen dituen alegietan zapalduak eta zapaltzaileak aurkitzen ditugu. Gizabanako baten aurkako indarkeria, bere taldeko edozein gizabanakori egiten zaio. Bidegabekeriak dakarren kaltea oinkatuari ez ezik, oinkatuaren talde (nazio) osoari ere dagokio. Esaterako, *Erle ta Miru* alegian miruak erleari egiten dion kaltea edozein erleri egingo lioke, atzaparretan duen erlea hil ondoren beste erle bat bilatu eta gauza bera egingo dio. Beraz, ez da bakarrik atzaparretan dagoen erlearen arazoa, erle guztien arazoa baizik. Miruari ez zaio inporta erlea nor den, baizik eta zer den, ea erlea den. Erlea bada arrazoi nahikoa da irensteko eta gauza bera eginen du harrapa ditzakeen erle guztiekin. Eta miru guztiek era berean jokatuko dute erle guztiekin. Miruen nazioa erleen nazioarekin borrokan dago.

Erlearen (ahularen) eztenkadetatik defendatzeko aitzakiarekin, miruak (ahaltzuak) erpeak estuago itxiko ditu, nahiz eta ahulak min gutxi egin diezaiokeela jakin. Are gehiago, berari mina egiteko gauza balitz ere badaki kalte txikia izanen litzatekeela, bere erantzuna askoz ere indartsuagoa eta doia baino gehiagokoa izan eta ahulak duen gutzia galduko lukeela, bizitza bera. Erleak askatzeko eskatzen dio behin eta berriz “kendu zakidaz, mesedez, nire gaiñetik, Miru jauna. Ai! Mindu egiten nozu... Itxi egidazu egaz egiten...” (IAAM, 155). Erlea ahul dago, eri eta indarrrik gabe, baina miruak ez dio kasurik egiten. Eztena sartuko diolakoan, ez du askatu nahi. Erlearen beldur dela dirudike, baina ez da hala, mirua egoeraren jabe baita. Hala eta guztiz ere, azken finean, guztiz nekatua, erleak eztena sartuko dio, mirua haserretu eta erlea hilko du. Bistan denez, bien arteko indarrak eta erasoci eman zaien erantzunak guztiz desorekatuak izan dira.

“Ta alakoren baten, larriaren larriak eraginda, bere ezten zorrotza atafa, ta erpapeitik sartu deuto Miruri. Eta, jakina, mindu egin da Miru, ta asarratu. Eta il egin dau Erle, il pikukadaka, ta iruntsi” (IAAM, 155).

Dena den, badira zapaldu batzuk ahaltzuaren poterearen aurrean buru makur, arrastaka eta belauniko hurbiltzen direnak. Zapalkuntza egoera normaltzat jo eta onartzen dute. *Arrastaka* izenburuko alegian marraskilo bat narrasten da arranoaren aurrean honen jauregira ailegatzeko. Boteretik hurbil egoteko ahaltzuaren aurrean

umiltzen den txepelaren jarrera salatzen du Zaratek. Jakina, arranoaren nagusigoaren aurrean ezin da harrotasunez jokatu, baina geure buruarekiko begirune osoa galduz ere ez. Esaterako, *Serbitzarien serbitzari* alegian ardiek zakurraren boterea nahitaez onartu behar duten arren, urguilua ez dute inolaz ere galtzen eta, oraindik ere, zakurraren aurrean beren eskakizunak defendatzen saiatzen dira:

“Zure eta gure ugazabarengana joatea nahi dogu, argi ta garbi egia esatera. Gure bildotsak, gure artille, gure esne, gure aragi..., emoten deusagu. Gure bizia emoten deusagu. Ta zer emoten deusku berak? Gure esparrutik kanpora agiri diran larra ederrak...? Bai zera! Larragorriak bakarrik.

Zuri zeuri ere zer edo zer esan bear deusugu. Naiz ta zu asarretu, premiñazkoa dogu ta. Ara: zuk ez deusazu ezer emoten ugazabari eta berak, ostera, guleriak guztiak egiten deusuz zuri; beragaz ibilli, beragaz jatekorik gozoenak jan, beragaz ondo ta nasai bizi, bizi, bizi... Eta gu esparruan, esi barruan, esparruan goseak illik, esparruan bizi eziñik, bizia emonez, esparruan egon behar. Eta asarre gara...” (IAAM, 108-9).

Ahulen bihotza suminduta dago, artzainaren aurka altxatzeko zorian:

“Bedar berdeak, bedar guriak
erre egin dira, erre;
ardi otzanak Matxinen larran
aserre dagoz, aserre” (IAAM, 107).

Artzaina, ordea, zakurraren indarraz baliatzen da ardiak zaintzeko, matxinada saihesteko. Izan ere, ahaltzuak ahulak zaintzeko saripekoak erabiltzen ditu beti, nahiz eta ahulek zaindariaren beharrik ez izan, nahiz eta jagolearentzat zaintzea eta hertsatzea gauza bera izan. Ahaltzuaren soldatapekoak ahularen zerbitzurako eta defentsarako daudelako amarrua ez da sinesgarria, inolaz ere ez; ahaltzuaren soldatapekoak ahaltzuaren zerbitzurako eta defentsarako daude eta ahularen aurka aritzeko, alegia, ardiak esparru barruan izateko, ezin bestela izan, ogia ematen dien eskua ezin hozkatu.

“Goikoa goian, berezko lege,
bhekoen onerako;
muna gainean dago txakurra
ardien serbitzurako” (IAAM, 109).

Ardien protesten aurrean zorigaitza egonarriz eramateko eskatzen du txakurrak, berak azeri eta otsoengandik defendatuko dituela baina isilik egon daitezen, geldirik, artzaina haserretzea ez baitu komeni. Halere, alegiaren moralak hauxe dio: amorruek amorrua dakar eta beldurrari aurre egin diotenen bihotzetan matxinoen hazia ereiten da.

“Gogorkeriak gogorkeria
berealaxe dakar;
ardiak larran esi barruan
ixil, geldid, larri, bakar...” (IAAM, 110).

1.2. Ahaltzuen mundua

Sai ta otso alegian ahaltzuen gizartea kritikatzeko da. Bele politikariak mundu hobe baten alde hitz egiten du telebistan. Inoiz beteko ez dituen agintzarietariko

bat dela jakin arren esan egiten du, bere lana inoiz beteko ez dituen agintzariak plazaratzea baita, hitz politikak esatea ahula bare dadin. Hala eta guztiz ere, ardi bat jaten ari den sai jaunari, putreari, hitz horiek ez zaizkio hain samurrak iruditzen, entzundakoaz harritzen da berak ez baitu hura baino mundu hobea irudikatzen: “obeagoa oraindino?”.

Zaratek ironia erabiltzen du ahaltsuen jokaera agerian uzteko, humore beltza. Baina, egia esan, hala gertatzen da zinez: ardiak jaten dituen ongi bizi da, harentzat guztiz ohikoa da ardiak jatea eta ez du horregatik bere kontzientzia mintzen. Ardiaren ikuspuntutik mundua hobe liteke (eta hori da, hain zuzen ere, bele politikariak ardiaren belarrien gozamenerako esan behar duena), baina saia ez da ardia, saia baizik, eta oso ongi bizi da ardiak jan daitezkeen mundu batean.

Bai, saia munduan ardiaren bizitzak ez du deus ere balio. Otsoarenean ere ez. Ardiak hiltzea eraitea da ardientzat, baina elikatzeko modu bat otsoentzat. Otsoaren ikuspuntutik ardiek ez dute otso-arimarik eta hil ditzake horregatik. Gauza bera gertatzen da gizakien munduan: giza-arimarik ez duen oro gizakiarentzat kaltegarri edo jangarri suertatzen bada hil daiteke kontzientzia arazorik gabe. Halaber, ahaltsuen munduan, ahaltzu-arimarik ez duen oro ahaltzuarentzat kaltegarri gertatzen bada, zigortu daiteke kontzientzia arazorik gabe. Ahaltzuak nazka senti dezake ahula zigortzeko beharra izateagatik eta, ondorioz, zigorraren ezarpenaz kode moral estu bat gara dezake. Baina, zigorrak berak ez du kontzientzia arazorik sortzen. Saia eta otsoa eztabaidatzen ari dira. Otsoari ardi hilak jatea, saiak egiten duena, abere zakarren jokaera iruditzen zaio, errespetu falta ikaragarria. Berak bizirik jaten ditu.

1.3. Ahul makurraraziak

On egiñaren pagua ipuinean bildots osagilea otsoaren etxera doa, eztarrian zehar turrik geratu zaion herbi-hezurra ateratzera, sendatzera. Otsoak ez dio deus ere ordaintzen eta, gainera, bildotsa umildu eta laidoztatzen du. Pozik jan zezakeen, bere ahoan izan baitu, hortz ikaragarrien artean, eta ez baitu jan. Horixe du sari guztia.

“Bizirik zagoz niri egin zorrotz artean egon arren, bizirik. Zer nai dozu, ba, zer? Zagoz ixilik asarretu ez naiten eta bear ez danen bat egin ez dagitzudan” (IAAM, 79)

Eta Bildotsak, oldartu beharrean herabe, “parkatu” esaten dio eta “beste batera arte” esanez otsoaren etxetik ateratzen da goganbehartsu, buru makur eta ezinegon larriaz:

“Maletña artu, ta ixilik eta ikaturik, badoa bere etxerantz Bildots jauna. Etorri ez da bakarrik etorri baiña, bakar bakarrik doa orain. Kanpoan oso otz dago eta illun. Deika dabilko telebisñoa Bildots jaunari. [...] Baiña Bildots jaunak ez deutso jaramonik egite, ta aurrera doa ostopoka, ez dau ezer ikusten eta; aurrera doa neguaren sabelean” (IAAM, 80)

Ipuin honen moralak erakusten duenez, zanpatuak zanpatzailearekin tratuan ibili ala ez erabaki behar du: negozio horiek onura ala kalte dakarzkioten, ez ote diren esetsaldia luzatzeko erabiliak izango. Zein ere den gogoetaren emaitza, zapaldua dagoena, jipoitua eta isekaz aritua izan dena, ez da horregatik umilduko, ikasita-

koa ez du ahaztuko, ez horixe, baina atzera begira gelditu gabe aurrera jo eta izkinarren beste aldean zer aurkituko duen jakin gabe bere bidetari ekinen dio, “aurrera... aurrera Bildots jauna” (IA, 79).

1.4. Ahaltsuaren ezaugarriak

1.4.1. Gutiziatsua

Txirorik txiroena ipuintxoan, ironia nabariaz, dirua besterik ez duen gutiziatsua- ren gogo landerraz mintzatzen da. Gizakiak gizaki egiten duten ondasun moral eta etikoak ez dituen nekez izanen da, benetan, aberatsa:

“Diruduna genduan,
diruduna Don Juan (...)
Baiña oso pobrea zan.
Dirua baiño besterik
ez cukan” (IAAM, 65).

Ahaltsuaren gutizia aseezina da, ondasun materialen gosea gero eta handiago izaten da, zerbait nahi badu, lortu behar du. Orain. Legea hausten duenean ez du protestarik egiten. Ordea, berari kaltea egiten badiote, sutan jarri eta salatzen du. Berak lapurtzen badu ez du zirkinik egiten, baina lapurtutakoa berari lapurtzen badiote bazterrak nahastuko ditu indarrez lapurtu zuena berreskuratzeko. Berez krimena dena eta ahaltsuaren iritziz krimena izan daitekeena ez da gauza bera. Bien artean izugarri alde handia dago. Adibidez, *Arratoiboda* alegian katu batek urtero iltzen zuen arratoi bat pernilak ateratzeko. Bere lagunek txantxa egiteko edo, pernilik hoberena ohostu eta gero gonbitea luzatzen diote arratoiaren urdaiazpikoa afari batean jateko. Baina gonbitea iritsi arte, katuak ez zekien ebaslea nor zen eta gogoia galdurik zegoelarik hauxe errepikatzen zuen berekiko behin eta berriz: “Nor izan ote da lapur gaizto hori?” (IA, 104). Bera, hiltzailea izan arren, ez omen zen gaiztoa.

Ageri denez, hiltzailearen ikuspuntutik bederen, hil dutenaren anka lapurtzea hilketa bera baino larriagoa da. Inork ez du hilketa salatu, ahaltzuak egin duelako, baina hilketaren ondorioz sortu den ondasunaren lapurketa, berriz, bai, ahaltzuari lapurtu diotelako. Horixe da lege haustea eta ez bestea. Kapitalistek elkarri lapurtzen ahal dioten arren, oro har, bekatu horiek barka daitezke, etekinak denen artean banatu eta denentzat onuragarriak izan daitezkeelako.

1.4.2. Fede gaiztokoa

Zaratek ohartarazten digunez, ezezagunen lagungo (ustez) jarea eta beren lausenguzko hitzak maltzurak izan litezke eta asmo ilunak izkutatu ere. Ez du esan nahi ezezagunen aurrean beti mesfidati, irudikor agertu behar garenik, baina egoeraz jabetu arte eta aurrean duguna ongi ezagutu arte fidantza osoa ez ematea komeni da; hau da, ahaltsuaren aurrean ahula fidakaitz izatea hagitz gauza zuhurra da.

Txorikumatxoa, beia ta katua alegian txorikume bat bere kabitik erortzen da eta, babesgabe, behi batekin topo egiten du. Txorikumea behia hain handia dela ikuste-

an beldurtzen da eta zanpatuko ote duen beldurrez, “arerio ikaragarri” bat dela uste du. Behiak, ordea, musu bat ematen dio eta, ondoren, gorotza bat bota ere. Horren barnean murgilduta eta harrapatua geratzen da txorikumea, baina pozik, bertan bero dagoelako, pozik, arerioa zena “adiskide maitagarri biurtu jakola ikusirik” (IAAM, 72). Kaka mordo bota dio, eta pozik.

Behiari zion beldurra gaintitu duenean, ezezagun guztiak behiaren antzekoak direla usteko du txorikume gaixoak eta katu bat ailegatzean ez du beldur izpirik sentitzen, aitzitik, beste “adiskide maitagarri” bat izan daitekeelakoan dago. Katuak gorputz osoa mihizkatzen dio eta txegosketa ondakin gotorrak mingainarekin garbitu ere bai. Zaintzen ari dela dirudike, baina ez da hala. Fede gaiztokoa da. Asmo txarrekoa. Jaki garbia eta itxura onekoa izan dadin prestatzen ari da:

“garbi-garbi egin dau katuak txorikumatxoa, ta aurreko erpa bien eridan artu ta jan egiten dau” (IAAM, 72).

1.4.3. *Eskergabea*

Zaratek ahaltzuen jokabide guztiz indartsua eta esker txarrekoa salatzen du. *On egiñaren paguan* ahaltzuek bildotsari ez dio bere esker ona erakusten, inolaz ere ez, nahiz eta bildotsak otsoaren gaitza sendatu. Eskergabea eta fede gaiztokoa, zeren eta otsoen etxera iristean, oraindik hezurra otsoaitaren zintzurrean zegoenean, eria otso otzana baitzirudien. Familia osoak harrera ona eta irrifartsua egin zioten, “bigun-bigun eta eskerrikaskoka agurtu du otsoaitak, eta baijaunaka ta ezjaunaka jarraitzen du” (IA, 77). Behin hezurra eztarritik atera ziotenean, ez zuen eskertzeko astirik eta hitz gordinenez mintzatu zitzaion bildots jaun txit beldurtuari:

“Egon zaitez pozik eta ixilik, mesedez. Egon zaitez pozik, bai, egin deusadana kontatzeko moduan zagozalarik. Izan ere, ez deusut miñik egin, egiteko era izan arren. Il aal izan zaitudan arren, ez zaitut il, ez, Gitxi deirtxazu orri? Sari aundiagorik zela emon daiketsut, ba?” (IAAM, 79).

1.5. Militarismoaren nagusigoa

Ahaltzuen indar militarren nagusigoa agerian uzten da *Zaldibi* eta *Sariketa Nagusia* ipuinetan. *Serbitzarien serbitzari* alegian indar polizialen papera aztertzen bazen kasu hauetan tankeen arrazoia aipatzen da azken argudio bezala. Azkena eta guztiz erabatekoa. Zarateren alegiak diktadura giro bati egokituak eta idatziak izan baziren ere, argi dago gaur egungo gizarteari ere egoki dakizkiokeela, kanoien hizkuntza hitzun ugari baititu munduan. *Zaldibi* alegian, zilindro gehien dituen beribilaren alde jartzen da tankea, gauza bera eginen du Izkiluk, bere kanoi lagunak:

“Tanke erraldoi itsusia agertu da, bere lagun Izkilugaz... Jakiña, astindu-astindu egiten ditue beingo baten Zaldibi ta Seat Txiki. Irrintzi kirrinkari samingarriak egiten ditu Seat Txikik Tankeren ankapetan. Maillatu egin dau onek. Izkiluk ere ederrak emoten deusoz. Il egingo dabe...” (IAAA, 69).

Indarraren monopolioa edukitzea guztiz beharrezkoa da jokoaren erregelak aldatu ahal izateko nahi denean eta indartsuaren beharren arabera. Indartsuen baimenik

gabe indargabeek ezin dute inolaz ere irabazi, joko batean irabaztea edo galtzea gerta daitekeelako baina bizitzaren jokoan indarkeria darabilten horiek bakarrik irabaz dezakete. Bizitzaren jokua ez da garbia. Amarruaren menpe dago. Ahularen iritzia aldatzeko bortxaz eta gogorkeriaz baliatzen da ahaltsua. *Sariketa Nagusia*-n tankeak eta traktoreak automobil lasterketa bat irabazten dute nahiz eta hiru bira gutxiago eman. Kanoi jauna, haien lagun mina dena, epaimahaikoekin hizketan luze aritu da:

“Galderaren bat egin deutse, antza, Izkilluk epaimaikoci, baiezka ta ezezka dabilkoz areek eta. Baiezka eta ezezka, baiña azkenean danak baiezka” (IAAM, 91).

Kanoiaren arrazoiak indartsuak dira. Alegiak idatziak izan ziren garaian eta egungo gizartean ere bai. Kanoiaren helburua alda daiteke, baina indarkeria beti garaile ateratzen da:

“Ixilik, mesedez, eta entzun! Aurtengo Sariketa Nagusia Tankek irabazi dau. Bigarren Traktorek egin dau. Eskerrik asko guztioi eta zorionak irabazleoi!” (IAAM, 93).

2. Besterentzea

2.1. Kaiolan eroso

Zapalketak urte luzez irauten duencan batzuk ohitu eta bidegabekeriarekin bizitzen ikasten dute. Arazoei aurre egin beharrean, arazoa ahantzi eta egitura berrian eroso sentitzen saiatzen dira. Ez dute indarrrik deus ere aldatzeko, geldirik eta alferrik egoten dira beti, beldurti eta otzan bilakatu direnez gero ez dute *arazo* hitza inon ere entzun nahi. Ez da existitzen. *Kaiolan jaio ta azitako txoria* kaligraman urrezko kaiola batean sarturik dagoen txori baten irudia erakusten da, geldi-geldi dago, oso polita da baina ez daki deus ere egiten, txoria izan arren txori askearen ezaugarri guztiak galdu ditu, hegan egiteko nahia, kantatzeko nahia...

“barruan magnetofonia jarri deusuen gure txori endekatu ori, ai, diseatua dirudizun gure txori txiki destxoritu errukarri” (IAAM, 135).

2.2. Hiriko konpota

Besterentzearen prozesuan hiriak garrantzi handia du Zarateren ustez. Gaurko gizarte industrializatuan, informatikaren erreinuan, gizonak eta emakumeak leku eta denbora gutxiago dute beren buruaz arduratzeko. Gizakia makina bilaka daiteke hiriko estuasunen, Ichien eta norgehiagoken eraginetik at geratzen ez bada. *Iñurri pilo piramidetua* kaligraman gizakia estutzen duen oro piramide itxura duen zaborte-gi metaforiko batera botatzeko proposatzen du. Luzaro gabe bota behar dena “giza-robotata” bilakatzen gaituena da; hau da, hiriko kea, porlana, galipota, harri-burdina, zaborra, iragarkiak... hiria bera:

“momiaturpiramidetuctailobituzureirihorian” (IAAM, 111).

Eta basoaren magalera itzuli gizakia, familia eta herria berriz ere berreraikitza:

“etagizonafamiliaerriaegitekoazbarrizbasora” (id.).

Euskaldungoaren izatea gordetzen duen baso erromantikoaren aldeko aldarrikapena ez zen berriro ere aipatua izan batuaz eginiko argitalpenean. Izan ere, IA-n olerki hau guztiz itxuraldaturik eta berridatzirik ailegatu zaigu, izenburu ezberdina eta guzti: *Konpota*. Bertsio honetan hiria gizakiaren etsai izaten jarraitzen badu ere ez da basoaren irudi gozorik agertzen. Hiriko gizakiak giro nahasian bizi gara, baina basora itzuliko bagina ere ez genuke nahasmendua argituko, besterentzearen aurkako borroka ez baita hirian edo basoan ematen, geure muinean baizik. Gainera, *Ura-
ren illeta*-n argi irakur daitekeenez, basoa bera ere kutsatu zaigu eta ibaia zikin eta pozoinduta dator Piztiagak Ekidazun sartu duen droga kimikoen menpean:

“Gazte drogatuena begirakuna du, tristuraz gainezka” (IA, 87).

2.3. Besteren nagusigoaren onarpena

Besterentzearen mailarik gorenean, kaiolan dagoen txoriak (disekatua iruditzeaz gainera, besteen iritziekin burmuina beterik edukitzeaz gainera) askatasuna kendu dionarekin zorretan dagoela uste du eta hura hiltzean bere zerraldotik pasatzen da aitaren eginetz, ilada luze, beltz eta isil batean itxoin ondoren. Stockholm-eko sindromea deitzen zaio honi.

Txoriak arrano jaunari (IA-n *Arranoaren ilobia*) tituluko alegian ahularen ahaltsuarekiko lilura erakusten da, azpi-proletarioek aberatsei eskeintzen dieten soldatapeko elkartasuna (edo doanekoa; aberatsen malkoez errukiturik, ahulak arrosa koloreko mundu horretatik hurbilago sentitzen baitira). Arranoa hiltzean, bere atzaparren azpian bizi izan diren txoriak umezurtz geratzen dira eta ez dakite askatasunean bizitzen. Arranoaren heriotzak, diktadorearenak, txorien bihotzak hunkitu ditu benetan eta duten eta diren guztia eskertzen diote, nahiz eta deus ere ez eduki, nahiz eta deus ere ez izan. Txoriek arranoaren ilobian poematxo hau kantatzen dute:

“Ementxe datza
Arrano jauna,
jaun aberatsa
ta ezaguna.
Jan eta edan
ta ondo bizi,
ainbat urtetan
dogu ikusi.
Ai, leenago
il balitxaku...,
txarto egongo,
giñan gaur gu” (IAAM, 95).

3. Elkar ezin ikusi

Ahaltsuak boterea gordetzeko etsai ahulak eta elkarren artean etsaituak behar ditu, horretarako eskura dituen bide guztiak erabili beharko ditu ahulen batasuna

oztopatu eta ahulak ahularen aurka jo dezan. Jon Kortazarren iritziz (1982: 102) ahul-en batasunaren beharra bereziki azpimarratzen da ipuin bilduma honetan, batasuna lortzen ez badute galduak baitira:

“Eskoikale, ezkerkale, erdikale eta Robot bi ipuinek badaukate tesis honekin zerikusirik. Lehendabizikoan, izenetatik bakarrik agertzen da joko hori. Robot bi ipuina askoz ere ipuin markatuago eta ezagunago bat da” (Kortazar 1982: 102-3).

Azter ditzagun, bada, aipatu ipuin hauek. *Eskoikale, ezkerkale eta erdikale* alegian iritzi ezberdinekoak diren eta etsaiturik dauden hiru kale hurbiltze prozesu bati ekiten diote. Jakina izen horien azpian euskal erakunde politikoaren itzala nabaritzen da. Eskoikale bakezalea da (jaun eta jabe den bitartean), Ezkerkale iraultzailea eta aurrerazalea, Erdikale inoren menpekoa. Zaiturik zeuden artean eta bakoitza bere aldetik zebiltzanean gainerako kaleen txantxak jasan behar zituzten (“beti alkarre-gaz bizi, ta ezin alkar ikusi”), baina orain batzeko ahaleginetan dabiltzanean, Ekidazu-ko arazoci irtenbidea bilatu nahi diotenean, Aberetakoez batasun hori erasotzat ulertu eta oztopatu nahi dute ahal duten indarkeria guztiarekin.

Ipuin honetako pertsonaiak, Ekidazuko hiru indar herrizale nagusiak, atxilo hartuak izanen dira eta, zuzenean, eroetxera eramana, beren ideiak biluztu dituztelako, etsaiaren aurrean larri gorritan geratu direlako, inauterietako mozorro babesle-rik gabe. Zaiturik egon direnak batu nahi izatea ez da gauza zuhurra. Botereak irtenbidea bilatzeko tresna ugari ditu, baina bat bakarra erabili ohi du eta indarke-riaren ondoren zatiketa da garrantzitsuen. Aberetak bakea nahi du, dudarik gabe, baina Ezkerkalek Eskoikalari esaten dion bezala: “Ondo bizi danaren bake santu zorionsua gura dozu zuk” (IAAM, 38). Eta hemen, Ekidazun, beste bake mota bat behar dugu:

“Zertarako asarreturik egon? Irurok gara premiñazkoak bata bestearentzat. Zer dala ta, ba, alkar ikusi eziñik ibilli gu beti? Adiskidetu gaitez. Eta eskoiratuz, ezkerretatuz, erdiratuz, edertu dagigun Kaleuri kalez. loraz eta abesti ederrez” (IAAM, 41)

Haurtzaroan ikusi eta biziki eragin ninduen margolan hura ezin izan dut inoiz ere burutik kendu. Goya-k margoturiko irudi hura ikusi nuen lehenengo aldiz ezin nuen ulertu oinak lurperatuak zituen eta lurrean tinkatuak zeuden gizon horiek zergatik elkarri makilazoka zebiltzan. Zer joku mota zen hura? *Basamortuko robotak* ipuina irakurtzen dudalarik, margolan hau datorkit burura. Herria herriaren kontra.

Gorrotoa gerrate zital baten ondorioz sortu dela esaten da IAAM-n. IA-n, berriz, ez da gerra horretaz ezer aipatzen. Izan ere, berdin da gorrotoa nola sortu den, garrantzitsuen da aiherra gainditzen ikasi behar dugula. Errua elkarri bota beharrean, eztabaidaka eta irainka ari beharrean, batu beharko lukete. Hain zuzen ere, basamortuko robotek egiten dutenaren kontrakoa, ankamotzak itsuari “begibako” deitzen baitio eta itsuak errenari “ankamotz”. Jokaera hori ez da giza-lege eta haizeak robotei batzeko eskatzen die, aurrera joateko elkarri laguntza eman diezaioten:

“Batera, bestera,
aurrera, aurrera!”

Auxe zuen zeregin,
 zuen aalegin,
 gure zeregin, gure aalegin.
 Zu orren begiekin,
 ori zure ankekin,
 aurrera alkarrekin” (IAAM, 50).

Baina basamortuan bizi diren robotek ez diote kasurik egiten. Ugerrak jango ditu eta ezereztuko dira. Elkarrizketarik gabe, ahulen arteko esetsaldiek gatazka usteltzen dute. *Menditzar ta menditxo* ipuinean jarrera higitzak eta gizakien harrokeria agerian uzten dira: “Kendu zaitez nire ondotik...” (IAAM, 37). Arazo komunak ditu zten horiek batzen ez badira, batek proposatzen duena besteak ez badu entzuten (eta alderantziz), baldin eta inkomunikazioa eta iraina badira haien harreman bakarrak irtenbidea ez da inoiz ere lortuko eta Ekidazuko letrak ez dira beren lekuan jarriko.

Gogaidetasunik ez badago, ulertzeko modurik ez badago, zerbaitetan irizkide izateko gogorik ez badago gureak egin du eta etsaiek etekinak aterako dituzte. IA-n jasoa izan ez zen *Beste gari mota bat* ipuinean zazpi anaiei batasuna eskatzen zaie Zezenlarru izeneko auzoko batek den-dena lapur diezaien nahi ez badute behintzat. Pirinioetako iparraldera begira dauden lurrek pentagono bat osatzen dutela esan den bezala, hegoaldera begira daudenek zezen baten larrua osatzen dutela esan da. Horkoa omen da Zezenlarru. Ereiteko garaia iritsi delarik, zazpi anaiak ari dira eztabaidatzen zer nolako gari mota erein, bakoitzak berea erein nahi du eta anaiak izanik ere, anaitasun izpirik ez da somatzen. Zezenlarru, haien auzokoa dena, egoeraz baliaturik anaiei garia lapurtu eta berak nahi duena ereiten du: “Ta beste gari mota bat erein eban, beste gari mota bat erein eban..., au ez” (IAAM, 127).

Kortazarrek ongi erakutsi duenez, garia zazpi anaiek duten aberastasun politikoa izateaz gainera, zazpi anaiei ondare linguistikoa ere bada, cuskara bera:

“Beste gari mota bat ipuinak interpretazio bikoitza du: batasun politikoa, edo batasun linguistikoa, baina batasun behar linguistikoa hori berpizte nazionalaren barnean sartu du Mikelek” (Kortazar 1982: 102-3).

Anaiak batu, hizkuntza batu, baina *Idatz eta Mintz* ipuinean gertatzen ez zen bezala, idatz moldea eta mintzaira banatu gabe, honetan ere batasuna errespetatuz, bi izanik bat direlako, “bizi izango badira, alkarregaz bearra izango dabe, bat egiñik bizi bearra” (IAAM, 23). Bizkaiera eta bazterreko euskalkiak baztertu gabe, batua indartuz, eta ahal delarik, letra eta ahotsa banatu gabe. Batasuna alde guztietan, gizartean, politikan, hizkuntzan eta arazoei eman behar zaien konponbideetan ere, zeren eta *Baikor eta Ezkor* alegian erakusten den bezala, erdi beterik edo erdi hutsik egon arren botilak oraindik ardoa baitu, ardo ona nahiz indargabea izan oraindik ardoa baita, gogo beroa edo epela izan, ausartia edo beldurri, gogo berberaren zatiak baitira. Bata baikorra eta bestea ezkorra izanik ere ez dira hain diferente. Txanpon bereko bi aldeak, txanpona osatzeko beharrezkoak.

4. Ahularen grina zikinak

Gorago, ahaltsoaren aurrean ahula nola narrasten zen ikusi ahal izan dugu, zapalkuntza egoera nola onartzen zuen eta behin baino gehiagotan ahulak ahula nola jotzen eta iraintzen zuen. Halaz ere, alegiak gaingiroki irakurtzen baditugu ere, ahulak biktimak direla antzemango dugu kasu guztietan, are gehiago hurkoa jotzen eta iraintzen dutenean. Izan ere, liburua itxi ondoren batek gogoeta egin dezake ahul zanpatu ongile eta ahaltso zanpatzaile gaiztoen manikeismoaren inguruan, ipuinetako izaki ahul horiek likitsak eta maltzurak direla erabat ahazturik. Eta hauxe da ipuin bildumaren arrakastarik handiena. Gizakia ankerra dela erakustea eta ez konaturatzea. Biktima dela erakustea eta horri bakarrik garrantzia ematea. Ondoko lerrotan botererik ez duten gizagaixoen krudelkeria, bihotz-gogortasuna eta grina lizunak ezagutuko ditugu. Horiek direla eta, ahulak ez du ahaltsoak ezarri dion uztarria inolaz ere gainetik kentzen ahal.

4.1. Irritsa

Aberetasuna ta Aberekeria ipuinean usoen eta gizakien mundua erkatzen da. Usоек gizatiarrak diruditen bitartean, gizakiak basapiztiak direla emango luke. Usoen jarrerak beren aberetasuna aberasten duen bitartean, gizakiarenak bere gizatasuna pobretzen du eta berez abercia delarik ere aberago azaltzen zaigu oraindik, eta usoen aberetasunaren aurrean, gizakiena aberekeria hutsa da.

Usoen kabian amodioa, zoriona eta bakea da nagusi: “ez katu, ez arratoi,/ osasun ta bakea,/ nork leukean betiko/ usoen aterpea!” (IAAM, 46). Usoen arteko harremanak “berezkoak” dira, naturalak, eta alegiak IA-n duen izenburuak horixe bera eskatzen du: *Berezkotasuna*. Gizon eta emakumeen etxeetan, berriz, gorrotoa da nagusi. Haien arteko harremanak berezkotasunik gabekoak izaten dira, lizunak eta likitsak. Balore etikoak galdu ondoren zoritxarra gizakien bihotzetan barneratzen da, bizitza oinaze bilakatuz.

Alegi honen egiturak argi uzten du batzuen eta besteen bizitza paraleloa, parrafoak binaka irakur daitezke: batean usoen paradisua islatzen da, bestean gizakien infernua. “Manikeismoa” da berriro burura datorkigun hitza... Hau ezin da honela izan, ez. Gehiegikeria da. Hiperbolea. Hau ez da gurean gertatzen...

Alegietako gizakien etxeetan tratu txar fisikoak eguneroko ogia dugu. Usоек, berriz, musuak ematen dizkiote elkarri, bai eta hitz gozoak esan ere. Senar-emazteak haserre daude eta borrokan ari dira, garrasika, “auzo guztien pozarren” (IAAM, 46).

Alegietako gizakien etxeetan tratu txar psikologikoak ohikoak dira. Usopak, berriz, kurruka dabilta, maiteminaren minaz, eta usamak usaitari hitz gozoak esaten dizkio. Senar-emazteak birao jaurtita dabilta (IA, 52). Kale bazter batean, gizon batek hitz gordinak bota dizkio emagaldu bati. “Ganorabako berbak entzuten dira beste nonbaiten ere” (IAAM, 47).

Alegietako gizakien gizartean emakumeen aurkako bortizkeria onartzen da eta bortxaketa ez da zigortzen. Usoen munduan uso maiteminduak maitatua maitekiro

maite du. Bitartean, alegietako gizakien munduan hogeita hamazortzi urteko gizon batek hamabost urteko neska bat bortxatzen du.

Alegietako gizakien gizartea infernua da.

“Usoak maiteminduen zeruan dagoz (...). Gizonezkoak eta andrazkoak iguiñaren inpernuan dagoz” (IAAM, 48).

Maitasunak berebiziko garrantzia du Zaraterentzat eta heriotza bera bezain ahaltsua dela esan ere. Amodiorik gabe ezin da ezer onik lortu. Deus ere ez du zentzurik. Amodioak guztiz purua eta garbia izan behar du, zerutiarra nonbait, eta amodiorik gabeko sexurik ez du onartzen, sexurik gabeko amodioa onartzen duen arren. Emakume idealaz duen irudiak gai honetan dituen aurreiritziak agerian uzten dizkigu eta gorteko amodioaren garaietara eramaten gaitu. Emakumeak mantxarrik gabea izan beharko luke nonbait. Zaratek usama ernari dagoela adierazteko hitz gozo hauek erabiltzen ditu:

“Arrotu egin jakoz usamari bere luma zuri garbi bigunak pozaren pozez. Eta usaitak lorez betetzen dau” (IAAM, 47).

Jainkoen menditik erori den gizalaba, berriz, ez da usoaren antzekoa. Izorratua izaten da, haragiaren bekatuaren meneko. Ipuinak egitura paraleloa duenez gero usamaren antzera emakumea ere haurdun egotea espero genuke eta ez da hala. Emakumea grina baxuen menpe dago eta umekia hil zaio edo du... batek daki. Beste emakume bat aipatzen da, hau bai haurdun eta abortatzeko asmo nabariekini:

“Ume galdu bat lurperatu dau emakume batek. Bere sabelean dau oraindiño beste batek, baiña prest lurperatzeko” (IAAM, 47)

Beraz, emakume garbia inozentziaren eta bertuteen miraila dugu. Usama hegok zabalik dantza egitea nabarmenedia gerta daitekeen arren eta usaita hari begira egotea lizuna, askoz ere okerragoa da gizonen jokabidea, grina irritsak, pornografia eta masturbazioa gustuko baitutuzte guztiek.

“Mutil bat eta neska bat daude irudi nabarmen batzuen azpian. Sorki zahar bat bezala darabil mutilak neska. Sinu ganorabakoak egiten ari da neska gangar bat mutil baten aurrean. Bakarrezko lizunkeriak egiten ari da, haiek ikusirik, beste mutil bat” (IA, 53).

Sexu bereko bi gizakien arteko harremanei dagokienez, Zarate harritzen da: “gizonezko bi?”. Homosexualitatea ere ez du onartzen. Usoaren munduan hau ez omen da gertatzen. Usoen munduan harreman guztiak “berezkoak” dira eta berezkotasuna da berak onartzen duen bakarra:

“Maitekeriak egiten dabilz gizonezko bi; besarka eta mosuka andrazko bi ere” (IAAM, 47).

IA-n harridura sentsazio hori argiago nabaritzen da:

“Maitemindurik gizonezko bi... Gizonezko bi? Baita andrazko bi ere; maitemindurik dagoz andrazko bi ere. Besarkatu egin dira gizonezko biak. Mosuka ari dira andrazko biak...” (IA, 53).

Dena den, jakin badakigu natura uste dugun baino anitzagoa dela eta gure inguruan berezkoa dena beste leku batean arrotz gerta daitekeela. Usoen munduan gauza bera suertatzen da. Usotuta guztiak ez dira ikertuak izan eta haien mundu izkutuaz gauza gutxi dakigu. Gerta liteke, nonbait, usaitek elkarri amodiozko dantzak egitea eta kabi berean gaua igarotzea urrumaka, kantututa apal eta beti-batekoen artean.

Esanak esan, horrek ez dio alegien gaurkotasunari ezer kentzen, Zaratek abortuaz, sexuaz eta amodioaz zuen ikuspuntua 1975eko gizartean gehien hedatuena zegoena zen. Diktaduraren garaiko sexu errepresioaren eraginak gizarte osoa bete bete harrapatu zuen. Zarateren heriotza frankismoaren heriotzarekin batera gertatu zenez ez zuen astirik izan ideia horiek berrikusteko eta birpentsatzeko. Gaur bizi izan balitz, ez zuen halakorik esango edo, aski ziur, beste era batera azalduko zukeen. Arlo honetan eman zituen erantzunak gaitituak egon litezke, haien galderen gaurkotasuna, ordea, ez.

Honela bada, berezkoa zer den eta zer ez den oso ongi ez dakigun arren, “berezko berezkotasun zuzenaren liluragarritasunean” ez garela bizi badakigu. Egia esan, Zaraterentzat amodio berezkoa eta zuzena begirunearen gainean eraikitzen dena da, maitaleen artean zapalketa egoerak onartzen ez dituenak. Zapalkuntzak, diru beharrak, jan beharrak, emakume engainatuen esklabutzak, ustia daitekeen haragitzat hartzeak, jazarritako inmigrazioak, bidegabekeriak, botereak hedatzen dituen drogek eta gainerakoek, berezkoa ez den amodio mota bat eragiten dute: gizonak emakumearen gainean ezarri duen zapalkuntzarena, prostituzioarena, eta hori salatu beharra dago.

“Diruz erosi dau neska gazte polit bat aberats batek” (IAAM 48).

Azken finean, berezkotasuna zer den jakiteko adibideak ez ditugu naturan bilatu behar, gure jokabidean baizik. Idazlearentzat neskek minigona janztea, makillatzea edo antisorgailuak erabiltzea eta mutilek biluzirik dauden nesken irudiak begiratzea eta hazia aterarazi arte zakilari eragitea onargarria ez den arren, berezkotasunaren gakoa hor ez dagoela oso ongi daki berak. Amodioa, askatasunera, berdintasunera, zuzentasunera eta maiteminduen zeruko ateetara hurbiltzen bagaitu, berezkoa izanen da eta “maitaleak maitatua maitekiro maiteko” du, baina infernuko galdareta gara garamatzala nabaritzen badugu, sexuen arteko zapalketa luzatzen badu eta lohian murgiltzera behartzen bagaitu, orduan ez, horixe ez da amodio zuzena izanen, ez eta berezkoa ere. Orduan, Zaratek crakutsi nahi izan zigun bezala, gizakia- ren grina irrits horiek ibai ertzeko zuhaitz kutsatuen antzera zikinak direla ohartuko gara, eta zuten “berezko edertasun ederra, liraintasun klorofilatsua” guztiz galdurik, perbertsio hutsak bilakatu zaizkigula ulertuko dugu (cf. *Uraren illeta*).

4.2. Berekoikeria

Maitasun faltsua salatzeaz gainera, gu ahulon, gizakion beste akats kontrairaul-tzaile bat salatzen du: berekoikeria. Aske izateko, zapalkuntzarekin bukatzeko berezkotasunez maitatzen ikasi behar dugula erakusteaz gainera, aurrera joateko berekoikeria albo batera utzi behar dugula irakatsi nahi du.

Gizakia, berez, berekoia da, bekaiztia. Hori ez da ez txarra, ez ona. Halaxe da, besterik ez. Baina sentipen bortitz hori bideratzen ikasi behar dugu gizartean bizi nahi badugu eta, are gehiago, geure burua zapalketa egoera batetik askatu nahi badugu.

Ume txikiak oso barneratuak ditu berekoikeria eta bekaizkeria sentipen hauek, iraultzaile batek, berriz, ezin du bere bihotzean horietarako lekurik utzi. Borroka kideen bizitza bere eskuetan dagoen bezala, berea haien eskuetan dagoelako. Garai- le eta bizirik ateratzeko denen elkar ekintza bateratua behar da, berekoikeriak batasun hori apur dezake eta heriotza dakar.

Niez naz zu ipuinean bere zorte txarra dela eta gabarra bat kexu da. Haserre dago biziki; bere ikatz zama astunegia da, nonbait, ibaian gora jotzeko. Ibaiak entzuten dio eta bere egoera okerragoa dela aditzera eman ere, ibaiak eraman behar baititu gabarrak eramaten duen zama eta gamarra bera ere:

“Zuk daroazun ikatz astun ori eta zeu, biok zaroedaz nik” (IAAM, 73)

Baina gabarrari hori zer inporta zaio? Bere arazoa besterik ez du ikusten:

“Bai baiña, ni ez naz zu” (id.)

Hala gertatzen zaio gizakiari behin baino gehiagotan, bere zilborrari begira luze egoten baita eta aurrera joan nahi badugu esnatu behar dugu eta bestea hor dagoela ohartu.

5. Erresistentzia

5.1. Borrokalariak

Ahularen akatsak eta miseriak ezagutu ondoren, ahaltsuaren nagusigoa onartzen dutenen erosotasuna salatu eta haien urrezko kaiolaren zirrikituak miatu ondoren, etsaiak hartu duen herrialdean ezarri den bidegabekeria onartu ez eta menpekotasunaren aurka, isilpean edo agerian, matxinatu diren ahulen erresistentzia ere aipatu eta goraipatu behar da, ahulen arteko batzuk, zoroenak, ahaltsuari oldartu baitzaizkio, galtzeko anitz aukera dutela jakin arren. *Ekidazuko astasendia* ipuinean ahaltsuaren paternalismoa eta inposizioa salatzen da. Babes emateko aitzakian krimenak egiten dituzte, bai eta bere boterea bortxaz ezarri ere.

Ipuin honetan espetxea erabiltzen da iraultza egiteko asmoa kentzeko, astakumeen burutik ideia hori behin betiko uxatzeko. Adierazpen askatasuna ukatu da Ekidazun eta gezurraren, oinazearen, torturaren eta erailketaren mendean bizi dira Ekidazuarrak. Piztiagatik datozen kanpotarrak, Aberetakoak, astategian sartu dira eta haiena dela aldarrikatzen dute. Kortazarrek aipatzen zuen nazio-zapalkuntzaren arazoari ekiten zaio alegi honetan, euskal astoak erdal piztien aurka jeikiko baitira, zezen larruko herriak euskal astategia beretu nahi baitu:

“Orroeka eta eupadaka, berealaxe eldu zirean astategira leoikume ta otsokumeok. Eta ate-joka asi zirean. Geldi, ixilik eta dardar bien bitartean astoak. Alakoren baten,

atea apurtu ta barrura sartu zirean arrapaladan kanpotarrok. Eta erpakadaka ta aginkadaka astoak agurtu ondoren, astategia euren zala esan eben” (IAAM, 54).

Etsaiak sartu dira euskal lurrian, arestian sartu ere, duela gutxi, eta dagoeneko haiena dela esaten dute. Astoek astaldiz astaldi hemen bizi izan direla diote, beti egon direla hemen, inork ez dakiela noiz sortu ziren, “los vascos no datamos” esaldi ospetsu hura gogora ekartzen dute eta “gu ez gara inoizko” erantzun diote otso argal bati asto guztiek batera. Arestian sartu eta indarkeriaz gainera: tristura eta beldurra hasi da hedatzen Ekidazun (“Indarkeriaren indarra, indarbakoen negarra”) eta, era berean, egoera berriari moldatzeko batzuen gogoa, gorago aipatu den kaiolan pozik bizitzeko nahia. Asto batzuen bihotzetan, halere, “eziñegonezko kezka iraultzaille” bat piztu zen eta kezka horrek eraginda matxinada sortu ziren Ekidazun eta “leoi-kume ta otsokumez bete zan erri osoa” (IAAM, 56), hauek errepresio indarrak izaki.

Ekidazuar batzuek, errebolitari gazteek, astotasunaren defentsan ostikoka atera nahi dute eta hori, asto zaharrari, esperientziadunari, ez zaio ongi iruditzen. Astotasuna astakeriarik egin gabe zaindu egin behar dela esaten die. Gazteek odol berokoa izanik zaharren eskarmentuaz ikasi behar dute. Zaharrak borrokatzeko bide zuzena zein den erakutsi nahi die baina gazteek, jakina, ez diote kasu handirik egiten. *Trena eta autoa* alegian gai honetan sakondu egiten da. Gazteak, usu, ez du zaharrak dakiena kontuan hartzen, baina gaztea ere zahartuko da egunen batean eta zaharrak egin zuen ibilbide berbera jorratu beharko du. Horregatik, gure zaharrek bizi duten esperientziak ikastea oso gauza zuhurra da.

Ekidazuko gatazkara itzuliz, egoera zertan den jakin dezagun: lehoiak noizbait astoenak izan ziren lurra menperatzen ditu eta haserre eta tristerik dago astakumeek iraultzari hasiera eman baitiote. Lehoiak ez du ulertzen gertatzen dena, astakumeen arrazoiak ezin ditu inolaz ere ulertu, berarentzat eskertzarreko seme-alabak dira, bera haien aitatzat hartzen baitu bere burua:

“Badakizue gure Leoi Jauna asarre dena. Errazoiz gaiñera! Bai orixe! Aita on batek baiño maiteago gaitu guztiok eta gure bake ta zoriona gura dau. Berau dogu gure benetako serbitzaria, aberetarren serbitzari leiala, serbitzarien serbitzaria... Askok sufri du dau aspaldion orrexegaitik. MInduta dago...” (IAAM, 59).

Serbitzarien serbitzari ipuinean gertatzen den bezala, hemen ere zapaltzailearen paternalismoa agerian geratzen da. Zapaltzailea etekinik ateratzera eta lapurtzera etorri beharrean zerbait ematera etorri dela dirudike. Haren interesen aurka aritzen diren talde antolatuen ekintzak deitoratzen ditu eta horiek berehalaxe espexeratuak eta epaituak izango direla agindu ere:

“Baiña gure Leoi Jauna lagun ta jarraibide dogularik, laister azpiratu ta zapalduko ditugu gure etsai gaizto banaka orreek, eta il egin bear badira, il egingo doguz. Bakoi-tzak berea, eta bakoitzari berea...” (IAAM 60).

Arazo berberak gertatzen direnean hitz berberak eta jokamolde berberak errepikatzen dira. *Deja vu* sentazioa hedatzen da orrialde hauek irakurtzean erabiltzen diren hitz horiek eta jokamolde horiek ezagunak egiten zaizkigulako. Ipuinak manikeoak dira, bai, baina hezurrezko eta haragizko jendearen jokaera halaxekoa da askotan: errealitateak berak ere manikeoa dela dirudi.

Astar astoaren semea atxilotu a izan zen eta beste astakume batzuekin batera “otso-abi” batera eramana ere bai. Hortik gutxira, Beñat Etxepareri gertatu zitzaion bezala jaunak bidalitako eskutitz (*erpatiz* edo *ankatiz*) bat iritsi zitzaion. Abereen jaunaren gutuna “aberelekarte” baterako deia zen eta bertan Astari joateko gonbidapena luzatzen zitzaion. Astamak ez joateko esan zion astaitari baina honek joatea erabakitzen du “Badaezpadan joan oba. Osterantzean...” (IAAM, 58), “Valinetan ioan ezpaninz, oguenduru ninçaten” (*Linguae Vasconum primitiae*). Beraz, astaitak “ogenik ez zuela ongi egitez bertzerik” lehoi jaunak deituriko bilerara joan zen. Astar gaixoak “jakin izan balu gauza nola jinen zen...”, baina hara bertaraturik maltzurkeriaren eta gezurraren hatzaparretatik ezin izan zuen ihes egin. Azeriak, lehoiaren kontseilari zenak, astaitari bere iritzia beldur gabe azal zezan eskatu zion, ez zitzaiola deus ere agituko:

“Bildur? Zeren bildur baiña? Esan, astar. Esan esatekoa, bildurrik gabe” (IAAM, 61).

Astaitak lehoi jaunaren eta azeriaren hutsak aipatu zituen, astoen berezko eta legezko eskubideak ere. Honela, berak jakin gabe, bere herio epaia sinatzen ari zen. Batzarra lehoiaren hitzaldiarekin bukatu zen, bertan gogorkeriaren kontra gogortasuna erabiltzeko beharraz aritu zen, eta preso hartuak izaten ziren horien sakabana-tzeko edo torturatzeko beharraz ere bai:

“Arrapatu, ba, doillorrok ta urrutiratu laster edo apurtu bizkor bizkar azurrak maltzur zantarroi” (IAAM, 62)

Senideei malkoz bete zitzaizkien begiak astakumeak urrun zitu ztelarik. Gaua baino lehen Astar batzarretik joan zen baina ez zen etxera iritsi. Goizaldean aurkitu zuten hilotza, bide bazterrean. *Bereterretxen khantoriaren* azken irudi berbera dator burura.

Astaita hil da, astakumea preso dago, baina astamaren sabelean astakumetxo bat hazten ari da eta alegi honen moralak zera dio: Ekidazuko arazoei irtenbidea ematen ez bazaie, beti egongo dira asto matxinatuak Ekidazun. Batzuk oraindik ez dira jaió.

5.2. Presoak

Arrakariren biurritasuna ipuinean arrantzaleen sarean erori den amuarrain batek ez du egoera onartu nahi eta ahalegin guztiak egiten ditu saretik ihes egiteko. Presoak ez ditu gaitibusun baldintzak onartzen eta azken unera arte aske izateko borrokan ari da. Matxinatua libre zegoencan, errebolatua espetxean ere. Bidegabekeriarekin eroso bizitzera ohitzen direnak, bidegabekeriak joak izan daiteke luzaro gabe. Sarean gustora daudenak eta loditzen ari diren amuarrainak arrantzaleen sabeletara igaroko dira goiz ala berandu. Ibai bateko amuarrainak sare batean harrapatuak izan dira eta arrantzaleek hor dituzte handiagoak izan arte. Arrankari izena duen amuarrainetako batek ez du elikagairik onartzen eta nolabaiteko gose greba bati ekiten dio. Gainerako amuarrain guztiek, lagundu nahi baitute, jarrera alda dezan eskatu eta bizirik iraun nahi badu jan behar duela esaten diote. Berak, halere,

ez die kasurik egingo eta bere jarrera azken ondorioetara eramango du. Itxialdiko lagunentzat borroka hori alferrikako lana da, baina bera harro dago:

“–Alperreko biurrikeria da zurea, Arrankari. Ez dozu ezer ere lortuko orrela. Alperreko biurrikeria...!

– Edo biurritasuna” (IAAM, 121).

Gosez hil daitekeen arren ez du bere seme-alabak sarean jaiotzerik nahi, ez eta bera bezalako presoak izaterik ere, eta aurrera jarraitzen du geroago eta argalagoa egiten, marasmoraino iritsiz. Arrantzaleak beren amurrain lodituak hartzera joaten direnean bat falta zaie, Arrainkari. Sareko zulo txikietatik irristatu eta ihesbidea aurkitu zuen, hain argal zegoen eta.

“–Baiña zergaitik ez dozu jaten, ba? –esaten eutsen bestek.

–Nik ez dot emen bizitzerik gura.

–Txarto bizi zara ala?

–Bai.

–Zer falta jatzu, ba?

–Askatasuna” (IAAM, 120).

6. Zarateren aukera

Nahiz eta ordu guztiak iraupen berekoak izan, oinazez bizi izandako horiek pozez bizitukoek baino askoz ere luzeagoak ematen dute. *Pozordu eta Minordu* ipuinean gizakiak sentitzen duen mina, gure herriak jasaten duena, munduan hedatzen ari dena, luzea dela esaten da.

“–Baiña ez aal dakizu, Minordu, bardiñak garana? Esakera danez: ordua ordu.

–Bai baiña...

–Bai baiña..., zer?

– Esan esan, ia, gizonei” (IAAM, 158).

Oinazeari amaiera jartzeko ordua da. Gizaki bakar bat oinazez balego ere, orduak berdin luzatuko lirarteke, izaki bakar bati egiten zaion kaltea izaki guztioi egiten zai-gulako. Oinaze orduak, min orduak luzeegiak izan dira eta badira honezkero. Mina sendatzeko beharra dago ahalik eta lasterren, munduan eta etxean, kanpoan eta gure baitan, poz orduak geroago eta gehiago izan daitezen, poz orduak min orduak ahanz-tera eramán gaitzaten.

Zarateren aukera oso garbia izan zen: aztore izan baino lehenago bildotsa izan nahi zuen. “Ez dut nahi izan/ aitzore./ aitzorearen/ gaizkide” (IA. 111). Usoak erail baino lehenago, heriotza nahiago zuen. Aztorea izanez gero, boterea zukeen, baina halaber, zital bilakatuko zatekeen. Ahula izan nahi zuen, bildotsa, nahiz eta mindurik bizi.

Bizitza gauza guztien gainean maite zuena gazte hil zen. Gazteegi. Bizitza kenteza bide okerra zela aldarrikatzen zuen bere alegietan, *Bildotsaren abestian* espreski:

“Ez dot gura, ez,
iliterik;

iraun gura dot
 bizirik;
 baiña bildots, neu,
 izanik,
 naiz eta bizi
 mindurik.
 Bizi gura dot
 nik ere,
 bizi, izanik
 ongille.
 Ez dot gura izan
 iltzaille,
 neu iltea da
 ta obe” (IAAM, 171)

Baina gazteek ez zituzten zaharraren hitzak entzuten. Bizitza maite zuen biziki, etsaiena berdinki.

Bibliografia

- KORTAZAR, J.; 1979a, “Mikel Zarateren Bizipenen bultzadaz”, *Jakin* 9: 140-145.
 —; 1979b, “Mikel Zarateren literaturgintza”, *Jakin* 11: 48-87.
 —; 1982, *Mikel Zarateren Prosa*. Mikel Zarate Saria, 1981. Euskaltzaindia-BBK: Bilbo.
- MANTEROLA, A.; 1979, “Mikel Zarateren biografia eta bibliografia”, *Jakin* 11: 44-47.
- ZARATE, M.; 1975, *Ipuin antzeko alegi mingotsak*. L. Zugaza: Durango [4. arg.: 1985, Labayru: Bilbo].
- ZARATE, M.; 1975, *Ipuin antzeko*. Gero: Bilbo.